

LABURPENA

Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bidez eskuratutako gaitasunak egiaztatzeke deialdia ireki da. 2021eko abenduaren 10eko [EHAA](#)n argitaratu zen.

Bete beharreko baldintzak:

- EAEn izatea egoitza.
- Azken 15 urteetan gutxienez 3 urteko lan-esperientzia izatea, gutxienez 2.000 ordu lan eginda, edota azken 10 urteetan 300 orduko prestakuntza ez-formala izatea.

Aurkeztu beharreko dokumentuak. (Jatorrizkoa eta kopia)

- Errola-ziurtagiria.
- NAN edo AIZ.
- Izena emateko eskaera, [IV. ERANSKINA](#)
- [Lanbide eta prestakuntza historia](#)
- Lan-esperientziaren justifikazioa:
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria (lan-bizitzaren agiria).
 - [Enpresaren egiaztagiria](#) eskatzailearen lanbide esperientzia.
 - [Aitorpen zinegilea](#) norberaren konturako langilea.
 - [Bolondres-en edo bekadunen lan zertifikatua](#)
 - [Aitorpen zinegilea](#).

Oso GARRANTZITSUA: Lanbide Kualifikazioetarako onartutako lanpostuak. [VII. ERANSKINA](#)

Prestakuntza ez-formalaren justifikazioa: eskatutako kompetentzia-ataletan gutxienerako prestakuntza-orduak dituela egiaztatzen duten agirien bidez egingo da, eta honako hauek jasoko dira bertan: edukiak, prestakuntza-orduak, prestakuntza eman zuen erakundea, prestakuntza egin zen aldia eta gainditua, positiboki ebaluatua edo aprobetxamenduz egina izan dela egiaztatzen duen adierazpen formala.

EZINBESTEKOA DA DOKUMENTAZIO GUZTIA AURKEZTEA IZENA EMATEKO UNEAN.